

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	JATETXEKO FAKTURAZIOA ETA JARDUERA-ITXIERA	Iraupena	40
		Berariazkoa	
Kodea	UF0260		
Lanbide-arloa	OSTALARITZA ETA TURISMOA		
Lanbide-eremua	Jatetxe-arloa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Jatetxe-zerbitzuak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Jatetxean zerbitzatzea.	Iraupena	130
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Jatetxeko hornikuntza-sistemak eta <i>mise en placea</i>	Iraupena	40
	Jatetxeko zerbitzua eta bezeroarentzako arreta	Iraupena	50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1052_2: JANGELAN ELIKAGAIK ETA EDARIAK ZERBITZATZEKO PROZESUAK GAUZATZEA gaitasun-ataleko LB4, LB5 eta LB6 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Fakturazio-mota eta kobratzeko sistema desberdinak aplikatzea, eta haietako bakoitzaren ezaugarriak eta abantaila-desabantailak aztertzea.

EI1.1 Jatetxe bateko ohiko kontrol- eta fakturazio-prozesua deskribatzea.

EI1.2 Kobratzeko sistemak identifikatzea, eta haien ezaugarriak, abantailak eta desabantailak aztertzea.

EI1.3 Fakturatzeko eta kobratzeko prozesuaren kontrol administratiboa azaltzea, eta, fase bakoitzean, desbideratze-kasuetan hartu behar diren neurriak identifikatzea.

EI1.4 Jatetxe-arloko fakturazio- eta kobrantza-prozesuetan parte hartzeak eskatzen duen erantzukizunez eta zintotasunez jarduteko beharra argumentatzea.

A2: Ekoizpen-egunkaria ixtea eta kutxa-likidazioa egitea.

EI2.1 Eguneko ekoizpena fakturen batuketa aztertzea.

EI2.2 Elikagaiekin, edariekin, bezero-kopuruekin, menu-kopuruekin eta karta-kopuruekin lan egitea.

EI2.3 Kutxako kontaketa egiteko prozesua deskribatzea.

A3: Jatetxeak ixteko prozesua deskribatzea eta gauzatzea laneko ohiko prozedurak aplikatuz.

EI3.1 Jatetxea ixteko egiten diren ohiko lan-prozesuak identifikatzea eta deskribatzea.

EI3.2 Jatetxeak ixteko kasu praktikoetan izakinak birjartzeko zer jenero eta prestakin eskatu behar diren hautematea.

EI3.3 Ixteko unean lokala, altzariak eta ekipoak garbitzeko prozedurak eta baliabideak aplikatzea.

EI3.4 Ekipo eta instalazioen ikuskapena eta mantentze-lan prebentiboak egiteko ohiko eragiketak identifikatzea.

EI3.5 Kasu praktikoetan, beste zerbitzu baterako prestatzeko edo lanaldiari amaiera emateko lan-prozesuak egitea, definitutako argibideen arabera eta segurtasun-arauak aplikatuta.

Edukiak

1. Jatetxe-arloko fakturazioa:

- o Fakturazioak zerbitzuaren parte gisa duen garrantzia.
- o Fakturatzeko oinarrizko ekipoak eta beste baliabide batzuk: euskarri informatikoak.
- o Kobratzeko sistemak:
 - Eskudirutan.
 - kredituan.
- o Kobratzeko sistemen aplikazioa: abantailak eta desabantailak.
- o Faktura egitea eta laguntza-baliabideak.
- o Kutxa irekitzea, kontsultatzea eta ixtea.
- o Fakturazio- eta kobrantza-prozesuaren kontrol administratiboa. Sor litezkeen arazoak. Hartu beharreko neurriak.

2. Jatetxe-arloko zerbitzu-itxierak.

- o Kutxa ixtea.
- o Ekoizpen-egunkaria:

- Elikagaiak.
- Edariak.
- Bezero-kopurua.
- Menu-kopurua.
- Karta-kopurua.
- Kutxaren kontaketa eta likidazioa.

3. Zerbitzu ostea

- Instalazioen, ekipoen, jeneroaren eta lehengaien mantentze-lanak egitea eta egokitzea, geroko zerbitzu batean erabiltzeko.
- Jeneroa biltegitratzea eta birjartzea. Stocka txandakatzea.
- Ixtean lokala, altzariak eta ekipoak garbitzea:
 - Kafe-makina.
 - Ganberak
 - Arasak.
 - Mihiseria jasotzea.
 - Lokala aireztatzea.
 - Ganberak ikuskatzea eta deskonektatzea
 - Instalazioak ixtea eta mahaiak desmuntatzea, dagokionean

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Jatetxe-zerbitzuak